

# Amets Elozegi Martin

E Maila | Bertsoa | aipamen saria

Kaixo, ni Amets Elozegi beasaindarra naiz. 10 urte ditut eta Andramendi ikastolara joaten naiz. Nire zaletasunak hauek dira: Jolastea, musika entzutea, musika jotzea eta kirola egitea. Handitan bideo jolasak egiten dituen, moster truck-ak diseinatze dituen, kirolaria eta pailazoa izan nahi dut.



## Emozioak

**Doinua:** Maritxu nora zoaz

Batzuek poza eta

besteek tristura

sentitzen dute baina

da gure ardura.

Normalean sentitzen

ditut onak baina

tarteka sumatzen dut

barruan samina.

Nireak nolakoak  
diren jakiteko  
bidean arnasketak  
ditut laguntzeko.

Emozioak behar  
dira bizitzeko  
sentitzen dugun dena  
adierazteko.